



Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariaren 2019ko apirilaren 26(e)ko EBAZPENA, eskolaz kanpoko jardueren programan zerbitzuak ematen dituzten pertsona zehatz batzuei aurreko ikasturtean eman zaizkien zerbitzu-eginkizunak luzatzeko prozedura ezartzen duena.

RESOLUCIÓN de 26 de abril de 2019, del Director de Gestión de Personal del Departamento de Educación, por la que se establece el procedimiento de prórrogas de comisiones de servicio, para determinadas personas que prestan servicios en el programa de actividades extraescolares, concedidas para cursos escolares anteriores.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Uztailaren 6ko 185/2010 dekretuak, Euskal Autonomía Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko funtzionario irakasleen lan-baldintzak arautzen dituen akordioa onartzen duenak, bere artikuluetan "eskolaz kanpoko jardueren arduradunaren" kargua arautzen du. Hezkuntza Sailburuordetzaren 1998ko maiatzaren 29ko ebatzenak, Haur, Lehen eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoetan jarduera osagarrien eta eskolaz kanpokoen programa deitu zuenak, agertzen ditu jarduera osagarrien eta eskolaz kanpokoen programako irakasleen funtziak.

Lanpostuetan aritzeko aparteko era da zerbitzu-eginkizuna eta uztailaren 6ko Euskal Funtzio Publikoaren 6/1989 legeak, azaroaren 7ko 16/1997 legearen bidez aldatuak, 54. artikulan eta ondorengoa xedatzen duen lehen aipatutako akordio erregulatzaileak 12. artikulan arautzen dute: "ezaugarri berezietako lanpostu edo funtziok bete behar izanez gero, zerbitzu-eginkizunen bidez betetzeko deialdi espezifikoak egin ahal izango dira. Deialdi horietan egon ahal izango da zerbitzu-eginkizuna hurrengo ikasturteetan luzatzeko aukera (...)".

FUNDAMENTOS DE DERECHO.

El Decreto 185/2010, de 6 de julio, por el que se aprueba el Acuerdo Regulador de las condiciones de trabajo del personal funcionario docente no universitario de la Comunidad Autónoma de Euskadi, regula en su articulado la figura del "Encargado de actividades extraescolares". Las funciones del profesorado del programa de actividades complementarias y extraescolares se recogen en la Resolución de la Viceconsejería de Educación de 29 de mayo de 1998, por la que se convocó el programa de actividades complementarias y extraescolares en centros públicos de Educación Infantil, Primaria y Secundaria.

La comisión de servicios se encuentra configurada como una forma extraordinaria de desempeño de puestos de trabajo. Está regulada en el artículo 54 de la Ley 6/1989, de 6 de julio de la Función Pública Vasca, modificada por la Ley 16/1997, de 7 de noviembre y en el artículo 12 del citado Acuerdo Regulador que establece que "cuando sea preciso cubrir puestos de trabajo o funciones en los que concurren características singulares, podrán realizarse convocatorias específicas para su cobertura mediante comisión de servicios. Estas convocatorias podrán contemplar la posibilidad de prórroga de la comisión de servicios para sucesivos cursos (...)"



Ildo horretan, zenbait ikasturtean eskolaz kanpoko jardueren programan zerbitzuak emateko zerbitzu-eginkizunak eman zaizkie pertsona zehatz batzuei eta zerbitzu-eginkizun horiek ondorengo ikasturteetarako luzatu dira.

Horren arabera, eta 79/207 dekretuak, Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituenak, 10. Artikuluan xedatutakoaren arabera,

En este sentido, a lo largo de varios cursos escolares se han venido concediendo comisiones de servicio a determinadas personas para prestación de servicios en el programa de actividades extraescolares, y las mismas han sido objeto de prórroga para cursos sucesivos.

En su virtud, y teniendo en cuenta lo dispuesto en el artículo 10 del Decreto 79/2017, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Educación

EBAZTEN DUT:

LEHENA.- Eskolaz kanpoko jardueren programan zerbitzuak ematen dituzten pertsona zehatz batzuei aurreko ikasturteetan baimendu zaizkien zerbitzu-eginkizunak luzatzeko procedura ezartzea 2019/2020ko ikasturtean.

BIGARRENA.- 2018-2019ko ikasturtean eskolaz kanpoko jardueren programan zerbitzu-eginkizunean aritzeko baimena lortu duten eta zerbitzu-eginkizun horretan 2019/2020ko ikasturtean jarraitu nahi duten pertsonek izango dute luzatzea eskatzeko aukera. (I. eranskina ikusi)

HIRUGARRENA.- Hezkuntza Sailaren web orrian eskura dagoen ezarritako ereduaren arabera egingo da zerbitzu-eginkizunean jarraitza edo zerbitzu-eginkizun horri uko egitea eskatzeko idazkia eta pertsonak zerbitzuak ematen dituen ikastetxeko zuzendaritzan aurkeztuko da.

LAUGARRENA.- 2019ko maiatzaren 2(e)tik 12(e)ra artekoa (biak barne) izango da zerbitzu-eginkizuna luzatzea edo berorri uko egitea eskatzeko idazkia aurkezteko epea.

BOSGARRENA - Zerbitzu-eginkizunean jarraitzeko edo espresuki uko egiteko eskaera ebaZen honetan ezarritakoaren arabera egiten ez dutenek galduko dute zerbitzu-eginkizun horretan jarraitzeko eskubidea eta uko egiten diotela interpretatuko da.

RESUELVO:

PRIMERO.- Establecer para el curso escolar 2019/2020 el procedimiento de prórrogas de comisiones de servicios autorizadas para cursos escolares anteriores a determinadas personas que prestan servicios en el programa de actividades extraescolares.

SEGUNDO.- Podrán solicitar prórroga quienes hayan obtenido autorización para comisión de servicios en el programa de actividades extraescolares en el curso escolar 2018/2019 y deseen continuar desempeñando la misma durante el curso 2019/2020. (Ver anexo I)

TERCERO.- La solicitud de prórroga, o la solicitud de renuncia a la comisión de servicios se hará según el modelo establecido disponible en la página web del Departamento de Educación y se presentará en la Dirección del centro educativo en que presta servicios.

CUARTO.- El plazo para presentar la solicitud de prórroga o de renuncia es desde el día 2 hasta el día 12 de mayo de 2019 (ambos inclusive).

QUINTO - Quienes no realicen la solicitud de prórroga o la renuncia expresa conforme a lo establecido en la presente resolución decaerán en su derecho a continuar en la comisión de servicios correspondiente entendiéndose que renuncian a la citada comisión.

SEIGARRENA.- Langileak Kudeatzeko zuzendariaren ebazenaren bidez, eskatzaileek baldintzak betetzen dituztela egiaztatu ondoren, emango dira zerbitzu-eginkizunak luzatzeko baimenak. Uko egiteak aipatutako ebazpenean onartuko dira. Jakinarazpenaren ondorioetarako, Hezkuntza Sailaren web orrian emango da argitara zerbitzu-eginkizunak luzatzea baimentzeari eta uko egiteak onartzeari buruzko ebazpena.

Aipatutako ebazpena argitara eman ondoren ezin izango da zerbitzu-eginkizunean jarraitzeari uko egitea eskatzeko idazkirik aurkeztu.

Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari gorako errekursoa jarri ahal izango zaio Langileak Kudeatzeko zuzendariaren ebazenaren kontra, hilabeteko epean, argitara eman eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

ZAZPIGARRENA.-*Herri*

Administrazioen Procedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 legeak 121. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera, gorako errekursoa jarri ahal izango zaio Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari ebazen honen kontra, hilabeteko epean, argitara eman eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

SEXTO.- Las prórrogas se concederán mediante Resolución del Director de Gestión de Personal una vez comprobado que las personas solicitantes cumplen los requisitos para ello. Las renuncias se aceptarán de plano en la citada resolución. La resolución de concesión de prórrogas y aceptación de renuncias se publicará, a efectos de notificación, en la página web del Departamento de Educación.

Una vez publicada la citada resolución no se admitirá la presentación de renuncia a la prórroga.

Contra la resolución del Director de Gestión de Personal podrá interponerse recurso de alzada ante la Viceconsejera de Administración y Servicios en el plazo de un mes desde el día siguiente al de su publicación.

SÉPTIMO.- Con arreglo a lo dispuesto en los artículos 121 y siguientes de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, contra la presente resolución podrá interponerse recurso de alzada ante la Viceconsejera de Administración y Servicios en el plazo de un mes contado a partir del día siguiente al de su publicación.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko apirilaren 26a

Vitoria-Gasteiz, a 26 de abril de 2019.



**Jon Agirre Huerga
LANGILEAK KUDEATZEKO ZUENDARIA
DIRECTOR DE GESTIÓN DE PERSONAL**

**I. ERANSKINA-2018-2019ko IKASTURTEAN ESKOLAZ KANPOKO JARDUEREN
PROGRAMAN ZERBITZU-EGINKIZUNEAN ARITZEKO BAIMENA LORTU DUTEN
PERTSONAK****ANEXO I- PERSONAS CON AUTORIZACIÓN PARA COMISIÓN DE SERVICIOS EN EL
PROGRAMA DE ACTIVIDADES EXTRAESCOLARES EN EL CURSO ESCOLAR 2018/2019**

DNI	DNI	DNI
11904068	15353922	16264107
11914073	15358930	22706732
14243660	15363516	22709038
14248035	15365208	22713431
14251471	15372706	22713625
14566753	15392517	22719550
14568139	15921636	22726619
14575590	15936092	22727265
14583403	15938060	24402777
14584636	15953307	24404957
14921418	15954550	30553766
14942968	15975013	30559309
14950148	16029092	30574274
14952268	16033309	72432696
14953595	16037744	72451885
15250846	16241637	78861192
15352368	16245902	78862363
15352633	16251874	